

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
7/2015	R11/2015	2015-06-19	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoaren helbide fiskala Gatazka ez onartzea Administrazioen arteko desadostasun ezarengatik</i>

R 11/2015 Ebazpena

7/2015 Espedientea

Vitoria-Gasteizen, 2015eko ekainaren 19an

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako hau

HITZARTU DU

Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurrean aurkeztutako gatazkaren inguruan. Horren helburua 1. ERAKUNDEAREN helbide fiskala zuzentzea da (IFZ: ----); izan ere, bere ustez, hori Madrilen kokatuta dago 2010eko otsailaren 25etik aurrera. Zerga-kontsulta hori 07/2015 espediente-zenbakiarekin izapidetzen da Arbitraje Batzorde honen aurrean, eta Gabriel Casado Ollero jaunak jarduten du txostengile gisa.

I. AURREKARIAK

1.- Gatazka hau Bizkaiko Foru Aldundiak aurkeztu zuen Ogasun eta Finantza Saileko Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako zuzendariordeak aurkeztutako 2015eko otsailaren 4ko idazkiaren bidez. Horren sarrera otsailaren 5ean erregistratu zen Arbitraje Batzordean.

Aipatutako idazkian azaltzen da, 2013ko uztailaren 15ean, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasuneko zuzendari nagusiak Zerga Administrazioko Estatu Agentziari jakinarazi ziola, Itunaren 43.Bederatzi artikuluan ezarritakoaren arabera, 1. ERAKUNDEAREN (aurrerantzean, «erakundea») helbide fiskala aldatzeko 2013ko ekainaren 5eko proposamena, 2010eko otsailaren 25era

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
7/2015	R11/2015	2015-06-19	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoaren helbide fiskala Gatazka ez onartzea Administrazioen arteko desadostasun ezarengatik</i>

arteko atzeraeraginarekin; izan ere, orduan jakinarazi zuen egoitza sozialaren eta fiskalaren aldaketa, Madrileko 1. HELBIDEAN kokatutako aurrekotik, Bilboko 2. HELBIDEAN kokatutakora.

Aurkezpen-idazkiari helbide fiskalaren egiaztapen-jardueren emaitza eta Bizkaiko Foru Aldundiari jakinarazitako helbidearen aldaketa gertatu ez dela ondorioztatzea ahalbidetzen dioten datuak eta frogak jasotzen dituen txostena erantsi zaio. Izan ere, Bilbon aitortutako helbidean, ez dago kudeaketa administratiboa eta negozioen zuzendaritza bertan zentralizatu denaren inolako seinalerik eta, gainera, erakundeak ez du establezimendurik, langilerik, ez eta ibilgeturik ere, Bizkaiko Lurralde Historikoan.

2.- Bizkaiko Foru Aldundiko Administrazioan, helbide fiskala aldatzeko proposamenari buruzko Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren erabakirik ez dagoenez, eta Ekonomia Itunaren 43. artikulua Bederatzigarren atalean aurreikusitako bi hilabeteko epea igarota, helbide fiskala aldatzeko proposamena gertatu zeneko indarreko idazketan, «isiltasun negatiboa» gertatu zela ulertu zen eta, ondorioz, Ogasuneko zuzendari nagusiak gatazka hau jartzea erabaki zuen, 2015eko otsailaren 3an.

3.- 2012ko ekainaren 7ko Epaian, 9/2011 errekurtsioan, Auzitegi Gorenak ezarritako doktrinan oinarrituta, Bizkaiko Foru Aldundiaren ustez, «gatazka honen moduko kasuan, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren erantzun-faltak eragindako isiltasun negatiboarekin, desegokitasuna ez da aplikagarria, Arbitraje Batzordearen Araudiaren (...) 13. artikuluan ezarritako hilabeteko epea igaro izanagatik». Halaber, eransten du «Arbitraje Batzordeak jadanik aplikatu duela logika bera aurreko ebazpenetan, hala nola 18/2010 espediente duen abenduaren 27ko R 19/2012 ebazpenean».

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
7/2015	R11/2015	2015-06-19	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoaren helbide fiskala Gatazka ez onartzea Administrazioen arteko desadostasun ezarengatik</i>

4.- Nolanahi ere, 2014ko abenduaren 16an, Zerga Agentziako Euskadiko Ordezkaritza Bereziaren Eskualdeko Sailaren buruak Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko Tokiko Tributuen eta Errolda Fiskalen Zerbitzuari jakinarazi zion, 2010eko otsailaren 25etik aurrera, 1. ERAKUNDEAREN helbide fiskala Madrilgo 1. HELBIDEAN ezartzeko proposamenaren onarpena.

5.- 2015eko otsailaren 10ean prestatutako eta egun berean erregistratutako idazkiaren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako zuzendariordeak Arbitraje Batzordeari jakinarazi zion Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasuneko zuzendari nagusiak onartutako hitzarmena, jarraian adierazitako terminoetan:

«Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Administrazioko Estatu Agentziarekin maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunaren 65. eta hurrengo artikuluetan aurreikusitako Arbitraje Batzordearen aurrean joan den 2015eko otsailaren 5ean jarritako gatazkan amore ematea, 1. ERAKUNDEA erakundearen helbide fiskalaren inguruan»

6.- Ogasuneko zuzendari nagusiaren aipaturako Hitzarmenaren oinarri gisa balio duen txostenak honako hau jasotzen du:

«Foru Aldundiko Errolda Kontrolaren eta Tokiko Tributuen Zerbitzuak akatsaren ondorioz bidali zuen 1. ERAKUNDEARI buruzko espedientea, Arbitraje Batzordearen aurrean gatazka aurkezteko. Izan ere, Zerbitzuak jasotzen du Zerga Administrazioko Estatu Agentziak idazkia bidali zuela eta, bertan, epez kanpo, joan den 2014ko abenduaren 16an gauzatutako helbide fiskalaren zuzenketa-proposamenarekiko adostasuna adierazten duela. Ondorioz, aurkeztutako gatazkaren xedea galtzen da. Beraz,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
7/2015	R11/2015	2015-06-19	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoaren helbide fiskala Gatazka ez onartzea Administrazioen arteko desadostasun ezarengatik

Bizkaiko Foru Aldundiaren amore-ematea adostuko litzateke, aurkeztutako gatazkari dagokionez».

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje-prozedura honetan, honako data hauek izan behar dira kontuan:

- 2010eko otsailak 25: erakundeak egoitza soziala eta fiskala Madriletik Bilbora aldatzen direla jakinarazten du.
- 2013ko ekainak 5: Bizkaiko Foru Aldundiak erakundearen helbide fiskala aldatzeko proposamena egiten du, 2010eko otsailaren 25eko atzeraeraginarekin, aurreko Madrilgo helbidean kokatuta.
- 2013ko uztailak 15: Zerga Administrazioko Estatu Agentziari jakinarazten zaio erakundearen helbide fiskala aldatzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren proposamena, Ekonomia Itunaren 43.Bederatzi artikuluan xedatutakoaren arabera.
- 2014ko abenduak 16: Zerga Administrazioko Estatu Agentziak Bizkaiko Foru Aldundiari jakinarazten dio helbide fiskala aldatzeko proposamena onartzen duela, 2010eko otsailaren 25etik aurrera.
- 2015eko otsailak 5: Bizkaiko Foru Aldundiak gatazka jartzen du Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurrean.
- 2015eko otsailak 10: Bizkaiko Foru Aldundiak idazkia bidaltzen du, gatazkaren amore-ematea jakinaraziz, xedearen galera dela eta. Izan ere, hori aurkeztu zenean, ez zen kontuan izan, akatsa zela eta, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak 2014ko abenduaren 16an

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
7/2015	R11/2015	2015-06-19	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoaren helbide fiskala Gatazka ez onartzea Administrazioen arteko desadostasun ezarengatik</i>

adierazitako adostasuna, erakundearen helbide fiskalaren zuzenketa-proposamenarekiko.

2.- Espedientean ez da jasotzen zeintzuk izan ziren, izanez gero, 1. ERAKUNDEA erakundearen helbide-aldaketan inplikaturako bi Administrazioek (Bizkaiko Foru Aldundia, proposamengilea eta Zerga Administrazioeko Estatu Agentzia, proposamenaren hartzailea) erabilitako ekimenak eta jarduerak, Itunaren 43.Bederatzi artikuluan helburu horrekin aurreikusitako prozeduran euren desadostasunak adiskidetsu konpontzeko.

Aldiz, aurreko datuen zerrendan jasotzen da, aipaturako manuan ezarritako bi hilabeteko epea nabarmen gaintitu zela, errekerimendua zuen Zerga Administrazioeko Estatu Agentziak Bizkaiko Foru Aldundiak proposaturako helbide-aldaketari buruzko inolako erabakirik eman gabe. Nolanahi ere, Auzitegi Gorenak aitortu du «helbidea aldatzeko proposamenaren erantzuna bi hilabeteko epekan kanpo gauzatzearen hutsaltasuna» (2012ko ekainaren 7ko Auzitegi Gorenaren Epaia, errek. 9/2011, 6. OJ), eta Arbitraje Batzordeak jadanik adierazi du «zergadunen helbideratzearen ondorioz sortutako desadostasunetan» (EIABAREN 13.1 artikulua), «garrantzitsuena ez dela isiltasuna edo erantzun-falta, baizik eta desadostasuna, eta ezerk ez du behartzen erantzun-falta hori desadostasun bezala identifikatzera nahitaez. Hori da esanguratsu bakarra gatazkaren aurkezpen-bidea irekia uzteko, desadostasuna berretsita, aginpiderik ezaren errekerimendua edo aitortpena gauzatzea beharrezkoa izan gabe; izan ere, kasu horietan, «helbidea aldatzeko eskaera soilak irekitzen du bidea, ukatuz gero, gatazka Arbitraje Batzordearen aurrean aurkezteko» (2012ko ekainaren 7ko Auzitegi Gorenaren Epaia, errek. 9/2011, 6. OJ)» (martxoaren 2ko R 4/2015, 20/2012 espedientea, Bigarren Oinarria).

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
7/2015	R11/2015	2015-06-19	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoaren helbide fiskala Gatazka ez onartzea Administrazioen arteko desadostasun ezarengatik</i>

3.- Gatazka jartzeko idazkian, Bizkaiko Foru Aldundia gatazkaren desegokitasunarekiko balizko oztopoari aurre egiten dio modu prebentiboan, aipatu berri dugun Auzitegi Gorenaren Epaia arrazoitzat aipatuz, «gatazka honen moduko kasuan, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren erantzun-faltaren aurreko isiltasun negatiboarekin, desegokitasuna ez dela aplikagarria kontsideratzeko, Arbitraje Batzordearen 13. artikuluan ezarritako hilabeteko epea igaro izanagatik». Eta hain zuzen ere, Auzitegi Gorenak adierazi du, «ezarritako epean erantzun-falta izanez gero, aldaketa sustatu zuen Administrazioak egokitzat jotzen duenean, ezerk ez duela saihesten horrek aldaketa-proposamena tazituki gaitzetsita ulertu ahal izatea eta gatazka formalki sustatzea, isiltasun negatiboari buruzko araudi orokorra aplikatuz (...)» (2012ko ekainaren 7ko Auzitegi Gorenaren Epaia, erre. 9/2011, 6. OJ).

Nolanahi ere, arrazoizkoa dirudi pentsatzea, helbide fiskalaren aldaketa sustatu duen Administrazioari proposamena tazituki gaitzetsita ulertzeko eta, horrela, Administrazio hartzailearekiko adostasun-faltaren ondorioz, gatazka ezartzeko aitortutako eskumena mugatua dela (eskumen bezala), borondate onaren eskakizunen (Zfr; urriaren 29ko R 14/2012 Ebazpena, 24/2012 espedientea, eta martxoaren 2ko R 4/2015 ebazpena, 20/2012 espedientea, Bigarren Oinarria) zein segurtasun juridikoaren berezko eskakizunen ondorioz. Eta hori, Arbitraje Batzordearen aurrean gatazka aurkezteko epea ezin delako Administrazio interesdunaren borondatearen zein erabakimenaren menpe egon, eta ezin da modu mugagabea irekita gelditu; izan ere, zentzugabea izateaz gain, logikarik ez izateagatik, hori segurtasun juridikoaren eskakizunetatik urrun geldituko litzateke, argi eta garbi. Are gehiago, kontuan izanda, zergadunen helbideratzeari buruzko desadostasun administratiboetan, tartean sartuta dauden Administrazioen eskumen-egoera eragiteaz gain, zergadunek Administrazio fiskalarekin duten harremanetan ziurtasuna izateko duten eskubidea bereziki eragiten dela, zergadunaren helbide fiskala zehazteak bere zerga-egoerarekiko duen garrantzia eta erregimen fiskal ezberdinak

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
7/2015	R11/2015	2015-06-19	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoaren helbide fiskala Gatazka ez onartzea Administrazioen arteko desadostasun ezarengatik</i>

elkarrekin bizi diren gurea bezalako zerga-sisteman horrek duen pisu berezia ikusita (Zfr; 2014ko maiatzaren 5eko Auzitegi Gorenaren Epaia, errek. 256/2012, 4. OJ).

Kasu honetan, gatazka jartzeko idazkian, Bizkaiko Foru Aldundiak ez du azaltzen, 2013ko irailaren 15ean helbidea aldatzeko proposamena tazituki gaitzetsia ulertzeko eta gatazka sustatzeko (isiltasun negatiboari buruzko araudi orokorra aplikatuz) bi hilabeteko epea amaituta, zergatik ez duen ulertzen gaitzespen tazitua eta, horrekin, gatazkaren aurkezpena eragin zuen erakundearen helbideratzeari buruzko desadostasuna hamasei hilabete igaro arte, hau da, 2015eko otsailaren 5era arte (Ekonomia Itunaren 43.Sei artikulua eta EIABAren 13. artikulua).

4.- Nolanahi ere, ez da beharrezkoa arrazoi eta baldintza horiek hemen aztertzea; izan ere, arbitraje-prozedura honetan jokoan dagoena ez da ez onartzeko balizko arrazoia, aurkezpenaren desegokitasunarengatik, baizik eta gatazkaren existentzia eza onartuarengatik.

Argi dago, sekulako desegokitasunarekin bada ere, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak Bizkaiko Foru Aldundiak 2013ko uztailaren 15ean jakinarazitako helbide fiskala aldatzeko proposamena onartu zuela 2014ko abenduaren 16an; ondorioz, argi dago ere bai, Arbitraje Batzorde honetan aurkezterakoan, 2015eko otsailaren 5ean, jadanik ez zegoela Bizkaiko Foru Aldundiak isiltasun administratiboaren ondorioz ulertutako Administrazioen arteko desadostasunik (...) zergadunen helbideratzeari dagokionez» (Itunaren 43.Sei artikulua), gatazka aurkeztea erabaki zuenean. Akatsa zela eta, ez zen ohartu Zerga Administrazioko Estatu Agentziak jadanik adierazi zuenaz zehazki hamazazpi hilabete lehenago proposatutako helbide-aldaketarekiko bere adostasuna.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
7/2015	R11/2015	2015-06-19	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoaren helbide fiskala Gatazka ez onartzea Administrazioen arteko desadostasun ezarengatik

Gatazkaren existentzia-eza dela eta, arbitraje-prozeduraren onargarritasun-oinarria falta da. Izan ere, arrazoi beraren ondorioz, modu desegokian aurkeztu zen eta, orain, ez da onartu behar.

Beraz, Arbitraje Batzordeak

HONAKO HAU ERABAKI DU

1.- 7/2015 gatazka ez onartzea, jarri zen unean, 1. ERAKUNDEA erakundearen helbideratzeari buruzko desadostasunik ez zegoelako.

2.- Hitzarmen hau Bizkaiko Foru Aldundiari eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziari jakinaraztea.